

## **Manex Erdozaintzi-Etxart** **Fedearen aitzindari, itxaropenaren kantari**

*Pentsa genezake gizabanakoen bizitzak hori besterik ez direla, bizitzak, alegia; norberarenak, iragankorrak... Ez. Bizitza oro bizia da, hilezkorra, bestearena... olatu itxurazko itsasoa.*

Gure artean jadanik ez dagoen norbaiti buruz ari garelarik, hildakoa aldare batean paratu eta gorai patzen hasteko tentaldian eror gaitezke hagitz erraz. Horrelako jokaerak, ulergarria izanagatik, ez dio inolako mesederik egiten ez pertsonaiari, ezta beregan edota bere obran interesik izan zezakeen inori ere. Neurritz gaineko aurkezpenek egiazko iduria lausotu eta guregandik urrundu baino ez baitute egiten. Ez nioke nik Manex Erdozaintziri horrelakorik egin nahi, ez bailitzateke bat ere zintzoa izanen mundu honetatik zaratarik gabe iraun zuen frantziskotar eta poeta apalari agur zalapartatsurik egitea.

Lehen tentazio hori gaindituz gero bigarren bati aurre egin behar diogu, pertsonaia oroitzapen bilakatzearena, alegia. Oroitzapen erratean hitzak izan dezakeen iragan geldoaren kutsua azpimarratu nahi dut, garai batean hagitz ona izan zen baina gaur egungo bizitzarako balioko ezer utzi ez duen norbaiti buruz ari bagina bezala. Zalantzarik gabe, hauxe litzateke Manexi egin dakioken traiziorik garratzena; izan ere, bere bizitzan, bere pentsamenduan, bere izpiritualitatean eta, nola ez, bere poesian, munduaren errealitate ororen gaineko ikuskera dinamikoa erakutsi baitzuen ezaugarri nagusi gisa, oraina gerorako proiektzio bezala bizitzeko joera propio bat. Etengabeko bilakaeran, mugimendu geldiezinaren daldaran, ulertu zuen Manexek mundua, errealitatea osotasun bat bezala, zeinean iturri beretik sortuak izan garen gizakiok maitasunezko amaiera berara abiatzen baikara. Horrexek izan beharko luke Manex irakurtzeko eta gogoratzeko giltza. Gertatutakoa orain berriz gertatzen ari izatearen sentipena; baina sentipen eguneratua, gaur egungo bizi-galdera berriei egokitua.

Zilegi bekit, beraz, Manex giza itsasoan oraindik ere bizirik dagoela sinestea, ez jada olatu berezi gisa, gu, bizidunok gauden bezala, ur-korronte gisa baizik, berriki joan zaigun XX. mendearen bukaeran Euskal Herrian bizi izandako kristau-belaunaldi anonimo oso baten norabide berean. Eta, kasu!, harengana hurbiltzen garen heinean atzemanen dugu ez direla gutxi beren sinesmena bide beretik zuzentzen duten gaur egungo kristauak.

### **Manex Erdozaintziren bizitza:**

Manex Erdozaintzi-Etxart 1934an sortu zen Ibarlan (Nafarroa Beherea) laborari familia batean. Haur denboran giro guztiz euskaldunean bizi izan zen, eskolan hasi arte hautsiko ez zena. Horregatik, hain segur, Manexek bizitza osoan zehar euskaldun gisa definitu zuen bere burua, garai horretan usu zenaren kontra, bere jatorrizko euskal izatea inoren aitzinean ezkutatzeko edo gutxiesteko okerrean sekulan erori gabe. Hasierako ikasturteak eskola nazionalean burutu ondoren, Donapaleuko frantziskotarren seminarioan sartu zen zortzi urte zituela, eta bi urteren buruan, fraide-hautua finkatua ikusten zitzaizolako edo, Briveko Seminario txikira joan zen bost urterako; handik Britainiako Quimper-era nobiziatua egitera, Okzitaniako Béziers-era filosofia ikastera, Toulouserako gero ikasketekin jarraitzera, harik eta 1958an Donapaleun fraide ordenatu eta Euskal Herrian bizitzen geratu zen arte. Haur eta gazte garai horietan Manexek bilakaera pertsonal handia bizi izan zuen. Familian eta

gizartean zegoen fede-eredua “errigorismoa” zen, erlijioa gizarte-sistemaren beste atal bat bezala ikusten zuena. Sistema horretan apaizak rol sozial bat jokatzen du eta sinestunek bat egin behar dute erlijioari eta aginte sozialari men egitean. Halaber, salbazioa heriotzaren ondorengo uzten da, munduan lan egin eta zintzoa izan, beste planteamendurik ez dago, jakinik aginteari edo erlijioaren araudi moralari uko egiten dionak behin betiko kondenazioaren zigorra jaso dezakeela -zigor zibilaz landa-. Epaille zorrotz eta zigortzaile bat, munduko gauzen etsaia, horrelakoa da erlijio-eredu horrek erakusten zuen Jainkoaren iduria. Baina hasierako fede motz eta integrista hori eraldatzen hasi zitzaion kanpoan ikusi eta ikasitako teologi eta filosofi haize berrien eraginez. Mundua aldatzen ari zen, elizaren barrenean kontzilioa ate joka zegoen, orduko Europa II. Mundu Gerraren ondoko krisia gainditzeko ari zen, askatasun-haizea zegoen giroan eta Manexek, mugimendu horren kariatz, ikuskera berri bat moldatzen jakin zuen fedeari zein giza izaerari zegokienean.

Hogeita hamar urteak gainditu berriak zituelarik, hirurogeiko hamarkadan alegia, Manex Erdozaintzik bi gertakari garrantzitsuak bizi zituen bere orduz geroztiko norabide pertsonalean zerikusitua handia izanzen luketenak: Aljeriako gerraren bukaera eta Vatikanoko II. Kontzilioa. Aljeriako gerrak (1954-62) herri xumeen zapalketa bere agerpenik gordinenean aurkeztu zion. Jean-Leon Erdozaintzi, anaia txikiak, Aljeriara soldadu joan behar izan zuen; anaiaren eta beste anitz auzoko eta lagun bidez, frantziarrek egindako sarraskien berri ezagutu zuen. Manexek herri xumeen zapalketa nola ezkututzen zen eta noraino iritsi zitekeen deskubritu zuen orduan, giza eskubideen defendatzaile bezala behin eta berriz aurkezten zioten Frantzia handiak ez zuen arazorik izan suntsipen-gerra izugarri bat antolatu eta burutzeko bere pribilegio kolonialistei eusteko saiakeran. Borroka tragedia gorrian bukatu zen. “*Presuner ohiak*” olerkian adierazten du Manexek gerra horrekiko sentimenduak. Aljeriak herri zapalduen aldeko konpromisoa deskubriarazi zion.

Kontzilioa dugu beste gertakari handia. Kontzilioako agiriek adierazten dutena baino, eliza bera aldatzeko aukerak hunkitu zuen Manex. Joan XXIII.aren deialdiak ordura arteko eliz sistema ez zegoela behin betiko finkatua sinestarazi zion berari eta bera bezalako kristau askori. Gauzak alda zitezkeen, baita eliza katolikoaren barrenean ere. Zirrikitu bat ireki zen hormigoizko egitura hertsian, bide berri eta zabal bat urratzen hasteko aukera: fedea, eliza, erlijioso-bizitza... garaiko gizon-emakumeen bizipenetara, lengoaietara... egokitu beharra zegoen. Jesusen Berri Ona eguneratu eta bestelako zahagietan eskaini denek, egarri handienean zeudenek bereziki, edan zezaten. Manexi, beste anitz kristauri bezala, Kontzilioak fedea susper liezaiokeen paradigma berri baterako atea ireki zion, kontua zen nola eraiki molde berri hori. Zalantza-bihirik gabe elkarte-lanean zegoen sekretua, oinarriko eraikuntza partekatuan, fede konpartituan... lan horri entregatu zen Manex gorputz eta arima.

Ondorengo urteotan lan pastoral eta lan politiko-kulturala uztartu zituen. Aita Lhande xiberotarrari buruz egindako ikerketak hasieran, “Enbata” mugimenduak urtero Iparralden antolatzen zituen *Journées des étudiants basques* delakoetan parte-hartzeak gero, eta bere garaiko euskal kulturaren eragile aipagarri batzuekin (Barandiaran, J. Intxausti, J.L. Davant, Santi Onaindia...) izandako harreman pertsonalek azkenik, Euskal Herriaren aldeko hautuan konprometitzera bultzatu zuten Manex. Esmatzen ari zen Europa berrian Euskal Herriak bere tokia behar zuela aldarrikatzen hasi zen; abertzale egin zen, internazionalista egiten zen aldi berean. Europako eta munduko justiziazko ordena herri zapalduen onarpen eta lehengoratzetik abiatu behar zen. Hasia zen ordurako Hegoaldeko militante politikoen ihesaldia Iparraldera babes bila, frankismoaren kontrako borroka eta Euskal Herriaren aldekoa bat egiten zuten hainbat erakunde politiko eta militarretan engaiatuak egotearen ondorioz.

Bestalde, frantziskotar ordenaren barrenean erreformaren beharra antzematen zen klarki. Fedea eta eliza bizitzeko molde zaharrak alde batera utzi eta eredu berriak ezartzeko tenorean zeuden. Kontzilioa, Teologia Politikoa, Hego Ameriketatik zetorren Askapen Teologiaren oihartzuna... frantziskotarren artean ere gorpuzten hasiak ziren. Norabide horretan egin zuen aitzina Manexek, eta ardurak hartu zituen Akitaniako Probintziako frantziskotar-instituzioetan. Teologia ikasketak bukatu berriak zituelarik Toulouseko fraidegaien hezitzaile aritu zen, eta lan horretan harrapatu zuen 1968ko maiatzak. Gero, Parisen psiko-soziologia ikasteko tarte bat egin ondoren, Probintziako idazkari nagusi izendatu zuten. Haren ustez, fraidea ez zen jadanik kasta pribilegiatu baten kidea, Erdi Arotik zetorren apaiz-ereduan erakutsi zieten bezala; aitzitik aurrerantzean langile izan nahi zuten, laikoekin eskuz esku aitzina egiteko, herri xumearen sentipenak sentituz, bide berriak urratuz. 1972an Donapaleuko komentua utzi eta fraide lagun batzuekin elkarte berri bat ireki zuen Domintxine herrian. Etxalde bat zen Domintxinekoa, ez komentu; bertan kultur elkarteak, langileak, euskaltzaleak, erakunde politikoak... biltzen ziren; aterpe-etxea izan zen hura oraindik ere instituzioetan tokirik ez zuen euskal mugimenduarentzat. Laikoek eta fraideek elkarrekin, eskuz esku, lan egiten zuten.

Kristau-mezua bizitzeko izpiritu berri hori oinarriko kristau-elkarteetan konkretatzen hasi zen, emeki-emeki eliza antolatzekeo alternatiba gisa sendotu ziren harik eta hierarkiaren piramideari buelta emateko baliatu beharreko tresna bilakatu arte. “Fededunak” taldea sortu zen orduan, Hegoaldeko oinarriko elkarteen parekotzat har dezakeguna; eta Manex han egon zen, taldeko idazkari eta bultzatzaile nagusi elkartearen ildo teologikoa zehaztean. “Herriarekin” apez taldean ere egon zen.

Urteak aitzina joan ahala Manexek proiektu gehiagori atxikitzen zion. Berrogei urteetako adinean zegoelarik bere anaia frantziskotarrek Akitaniako Probintzial hautatu zuten, Probintziaren eraberritze teologiko eta pastoralean konprometitzeko aginduaz. Ordurako hasita zuten fraideek erlijioso-bizitzaren birplanteamendua, eta garai hartan Donapaleuko komentuan Manexekin bizi zen Bertrand Duclos anaia, “Frères du Monde” aldizkari antikolonialistaren fundatzailea, berarekin aritu zen egitasmu horretan. “Fededunak” taldea, bestalde, gero eta erantzukizun handiagoa bereganatzen zuen. 1973an Udako Euskal Unibertsitateak Donibane Lohitzunen mintegi berezi bat antolatzekeo eskatu zion “Fede krisia Euskal Herrian” izenburu pean. “Fededunak” taldeak eliz eredu berri batera abiatu zituen bere ahalegin pastoralak, non euskarak toki berezia izan behar baitzuen. Euskararen alde ere konprometitu zen Manex, Seaskako lehen irakasleen hezitzaile, AEKko Gau Eskoletan irakasle, eta laborariek, Etxarriko laborantza-eskolaren sorreran...

Hala ere, lan horren guztiaren zurrumbiloan, tarteak ateratzen zituen seroren komentueta gogo-jardunak eta hitzaldiak ematera joateko eta tarte berezia ere olerkirako, bizia isilean dastatzeko, Manex gai baitzen, alegoriaren eskutik, biziaren misterioan barneratzeko.

Berrogeita hamar urteak betetzear zituela eraman zuen arreba Heriotzak. Bat-batean, Probintziako frantziskotar arduradunekin Toulousen zegoelarik, Aste Sainduaren bezperetan. Odol-isuri bat izan zuen 1984ko apirilean, eta egun batzuk beranduago, maiatzaren leian, bihotzean beti eraman zituen langileen egunean, hil zen.

## **Literatur lana**

Poesia Manexen ezaugarria da. Alabaina, poesia aipatzen dugularik ez gara idazkietara mugatzen, izan ere poesiak mundu-ikuskerara berezi bat eman baitzion, eleez haratagokoa, bihotzaren begiez ikusteko gaitasuna. Manexen izpiritualitatea, mistika... poeta batena da; bere bizitza otoitz, kantu bilakatu duenarena. Frantziskotarren izaeraren muinari atxikia, Manexek bere egin zuen Asisko santuaren dohaina eta gai egin zen errealitate orori “anaia”, “arriba” deitzeko, lurrari bezala borrokari, amari bezala herriko militanteari.

Manexen obra argitaratua ez da zabala, hiru poema-liburu (“Hinki-hanka”, “Bizitza pilpirak”, eta “Nafarroari poema irekia”), prosa poetikoaz idatzitako eleberri labur bat (“Gauaren atzekaldean”) eta han-hemenka, garaiko aldizkarietan (“Maiatz”, “Herria”, “Elgar”, “Jakin”...) barreiatutako olerkiak eta saiakera-artikuluak. Eta gaur egun, “Zabalik” elkarteari esker, Donapaleuko Frantziskotarren Komentuko liburutegian bilduak eta sailkatuak dauden ehunka idazki argitaragabeak. Denak ikerlarien edota kuriosoek eskura.

Manexen bizi alderdi orotan bezala, bere literaturan ere azpimarratzekoa da mugimendua, bilakaera. Hasierako olerkia, gazte denborakoa, naturazalea da, izadiari lotua. Manexek herria, etxea, familia, lurra... idealizatzen jotzen du, unibertso horretan paradisu bat, *Arcadia* galdua, atzematen duelako edo; elementu horietan errotzen da bere izaera, euskal sena, bere uraren iturria... Poesia gardenena da, Gandiagarekin antzekotasunak dituen (neurri apalago batean, noski), eta mundu orekatu eta zoriontsu bat deskribatzen diguna. Geroztik Manexen poesia sozial bilakatzen da, mingarriago, gogorrago eta, halaber, solidarioago (Gabriel Arestiren eragina). Poesia naturaletik poesia sozialera iragaten da, baina ez aurrekoarekin hautsiz, bi alderdiak uztartuz baizik, munduko tragediaren gogortasunak inoiz ezin izanen baitu sortzez emana zaigun oreka hautsi. Euskal Herria, langileak, munduko herri zapalduak... Manexen poesiaren protagonista bilakatzen dira bigarren fase horretan, baina sekula amore eman gabe, sekula –bere garaian modan zegoen bezala– existentzialismo etsigarrian erori gabe. Manexek bere herriari kantatzen dio, injustiziak salatzen ditu, “herri ukatuaren poeta” bilakatzen da. Baina itxaropenari eutsiz beti, ongi dakielako munduko errealitate guztiak, hemengoak nahiz haraindikoak, Jainko sortzailearen esku daudela, eta berari dagokiola azken hitza, azken maitasun-zeinua. Erdozaintziren idazkietan herri askatuaren promesa, herri zapalduetako elkartasuna, langileria zutituaren itxaropena..., konstante bat dira. “Sinesten dut” olerkian eta horren segida den “Errepikak” izenekoan (ik. *Bizitza Pilpirak*, liburua) hagitz ongi adierazten da Manexen izpiritualitatearen eta borrokaren batasun existentziala. Bada Jainko kreatora bat munduaren bilakaera abiatu eta orduz geroztik zuzentzen duena; ez gara ezerezaren seme-alabak, haatik, historiaren barrenean begiei ikusiezina zaien baina izan baden indar izpiritual sekulakoa ezkututzen da, bere motor zentzu-emailea dena. Bizia izaki orotan dagoen jainko-izpituaren agerpena da. Erranenez Manexen ustez –eta honetan Teilhar de Chardinen jarraitzaile ageri da– giza existentziak jainko batasuna eta osotasuna agertzen dituela. Eta gauzak oreka hautsiez inoiz horretan murgilduta daudenez, gizakiak ezin dezake ez izatea onartu: zapalkuntza, etsipena, negarra, heriotza... ukazioak izan arren, hazi emankorrek ere badira, ernaltzen ari den mundu berriaren haziak. Horra hor Manexen poesiaren (bizitzaren) mezua: borrokaren mistika, fedaren konpromisoa, itxaropenaren taigabeko gauzapena.

### **Eta Manex gaur egun zer?**

Errana dugu jadanik Manexen bizitza eta obra hildako oroitzapen gisa aipatzea traizio bat litzatekeela, bera bezalako izpitu-gizonak itsaso irekizko urak baitira, ez, ordea, urmael geldoak. Manexen obraren zabalera ez da handia eta bere ekarpena pertsona bakar baten

ahaleginaren ondorioa baino Vatikanoko II.aren kariaz Euskal Herrian sortu zen kristauen mugimendu sozial, politiko eta fedezkoaren bultzada da. Aurkezpen honekin jarraitzeko, beraz, guregandik hurbil egonagatik, oraindik ere behar bezala aztertu eta kontuan hartu gabe dagoen bere garaiko sinestun-belaunaldiaren gaurkotasuna aldarrikatu nahi dugu eta, bide batez, Europa kristau-humanismo jatorrenaren oinarrian eraikitzeko gutizian, bere pentsamenduak eskaintzen dizkigun aukera batzuk aurkeztu. Honako hauek dira:

#### Irekitasun existentziala:

Manexi bi mundu guztiz kontrajarrien arteko borroka bizitzea egokitu zitzaion: alde batetik, berak sorterrian bizi izandako laborantza-mundua, kristandadearen erlijio-eredu errigoristak menperatua zegoena eta modernitatearen jaurzia burutu gabe zuzena, hiltzerian zegoen mundu bat; bestetik modernitatearen mundua, Parisek, Toulousek eta hiri handiek erakutsi ziotena, arriskuez eta lilurez betea: indibidualtasuna, sekularizazioa, klase-diferentziak, baina, halaber, mugimendu politiko berriak, sindikatuak, sozialismoa, erlijio eguneratua... Bi mundu-ikuskerak buruz buru.

Manex bere baitan bi paradigma horien arteko borroka gaintzera derrigortua egon zen. Mundu-ikuskerak zaharrak ematen zion segurtasun psikologikoa, modernoak aurkezten zizkion aurrerapen eta segurtasun-gabezien kontra. Ez zuen bietako bat hautatu, aurkarien sintesiaren bidetik abiatu zen. Hautzarotik zekarrenari eutsi zion, baina modernitateak irekitako ikusmolde berrien argira galbahetu ondoren; horrela eraiki zuen bere pentsamendua, mistika pneumatologiko sakon baten dinamikan: oinak lurrean ditudala, maitasunez irekitzen naiz kanpoko errealitateei, niregan zerbaitek berri sor dadin; Euskal Herrian sinesten dudalako gainerako herri zapalduen errealitateak ere nireak egiten dira; pertsonen balio sakratuan sinesten dudalako hazkunde kultural eta tekniko berriei irekitzen naiz, maitasuneko giza harreman berri bat sortzeko; kristaua naizelako beste erlijio eta sinesmenei irekitzen naiz, haraindik Jainkoagandik hurbilago egoteko. Bizi gertakariei aurre egiteko joera hori da Manexen irekitasun existentziala, norberaren izate sakona ezeri ez ixtea baina, modu berean, ezer ez onartzea baldin eta lehenago barneratze prozesu pertsonal baten bidez landu ez bada.

Manexen proposamenak sekulako balioa du gaur eguneko ere. Egoera paretsu batean egon gaitezkeelako aurkariak aldatuta. Gaur egun borroka ez dago modernitatearen eta modernitate aurreko laborantza-ikuskeraren artean, modernitatearen eta aro industrializatu ondorengo bizimodu despersonalizatuaren artean baizik. Eta gure lehenbiziko tentazioa industri aroaren ondorengo bizimodu hau baztertzeko izan daiteke, gure konfiantza betiko segurtasunetan paratuz. Postmodernitatearen balio gabeziak eta liluretarako modu akritiko batez egokitzea izan daiteke kontrako jarrera, orain artekoa bazterrean utzita. Oraingo sasoiak paradigma aldatzeko eskatzen dituzte arlo anitzetan, sintesi egokia bilatzea da gure aukera.

#### Abertzaletasun internazionalista:

Globalizazioa gaur egungo fenomeno da. Ulertzeko aunitz modu badago ere, printzipioz horrela definitzen ahal dugu: norbanakoaren eta herrien bizia nazioartean zabaldutako parametro unibertsalen arabera zehazteko joera. Giza bizi indibidualaren eta kolektiboaren erreferentzia nagusiak, baita egunerokoak ere, tokian tokiko testuinguruaren mugatik haratago zedarrizten dira, nazioartean, mundu mailan; bertan ontzat, baliagarritzat ematen diren printzipioek eta bizimoduek gureak zehazten dituzte. Beraz tokian tokiko jokabideak, kultura bereziak, berariazko giza arauak, modu propioak... desagertzera deituak daude, unibertsalki onartzen direnen mesedetan. Komunikabideek, Internetek, nazioarteko

albiste-agentzia handiek... balore eta bizimodu berri horiek definitzen dituzte. Globalizazioak, politika munduari aplikatzen zaiolarik, pentsamendu bakarrera garamatza: politika konprenitzeko modu bakar bat dago, ideologia bakar bat, neoliberalismoa.

Globalizazioak, edo globalizazioaren interpretazio zabalduenak bederen, berezitasun kulturalak baztertzen ditu: ingelesa da balio duen hizkuntza, modu bakar bat dago dibertitzeko, hezkuntza planifikatzeko, jateko, bizitzeko.... Txikiek, beti bezala, ez dute tokirik gizarte-eredu horretan.

Pentsamendu bakarra politika-arlori aplikatzearen ondorioz, herrien eta estatu handien arteko dialektika sekulan baino gehiago tenkatu da gaur egun, eta nazionalismoak, abertzaletasuna, mesprextatu egiten dira, gainditutako folklorismo baten azken aztarna balira bezala. Estatu modernoak da egitura politiko perfektua, Europa berriaren oinarria.

Manex ez zitzaigun globalizazioaz mintzatu, baina Euskal Herria munduan kokatzeko ikuspegi zentzuzko bat utzi zigun. Etengabeko bilakaeran beti, Izpirituaren mistika unibertsalaren hegaletan, euskalduna izan zen lehen, euskaldun kontzientea, herrikide bat, eta geroztik, Euskal Herria desagertzeko arriskuan ikusi zuelarik, abertzale bilakatu zen. Baina ez ordea bere herriarentzat inolako nagusitasunik nahi zuelako, herri gisa bizitzen segitu nahi zuelako baizik. Herri bat gehiago, munduko beste herrien pare, herri txikien oinarritik handitzen eta aberasten doan mundu kulturantzaz haziz, herrien arteko elkartasun unibertsalean zutarria duen etxe komun bat osatuz. Horrela eraikitzen da Europa berria, merkatu-lege zapaltzaileen gainetik, herri txikiekiko elkartasun oinarritzeko. Kristautasunak, kristandade-asmoez behingoz garbituko balitz, baztertuen aldeko hautua indartzeko aldarrikapena eraman lezake Europaren proiektura.

Horra hor abertzaletasun internazionalistaren gakoa, gaur egun sekulan baino beharrezkoagoa. Euskal Herria eta Europa eraikitzeke lanean gaudelarik, munduko herri zapalduen egoerari so egitera deituak gaude; begi bat hemen, bestea Europako gutxiengoetan, Afrikako nazio zapalduetan, Iraken, Kurdistanen, Palestinan, Tibeten, Kuban... Bada gaur egun inperialismoari aurre egiten dion mugimendu antiglobalizazio indartsu bat; bada, halaber, munduko zortzi herri aberatsenen joera ekonomiko zapaltzailea salatzeke sortu den "Foro soziala"... ihardesteko aukera paregabeak dira, Euskal Herrian horrelako erreferentziei jarraiki behar zaie.

### Konpromiso morala:

Postmodernitateak metarrelato handien erortzea eragin du. Gizakien arteko elkartasun-eredua eta askatasun kolektiboa eskaintzen zizkiguten diskurtso teoriko handiak (marxismoa) desegin dira eta neoliberalismoa jaun eta jabe agertzen da herriak menperatzeko sistema ekonomiko eta politiko gisa. Idurituko luke AEBko ekonomialariek iragarritako historiaren bukaera errealitate egin dela, kapitalismoa eta bere estatu-eredua gailendu direla behin betiko giza harremanak antolatzeke egitura gisa. Gauzak horrela, etsipena da militante askoren jarrera, ezintasuna. Egoera penagarri horretan postmodernitateak gure barrenean hertsia jarraitzeke proposatzen digu: borrokak ez du merezi, engaiamendu gizatiarrek frustrazioa baizik ez dute ekartzen, beraz, ahantz dezagun borroka, beste herriei, beste gizakiei gertatzen zaiena bost axola guri, aski dugu gure buruaz kezkatzeaz. Ideal kolektibo baten alde borrokatu beharrean gure nahikeria indibidualak aseko dituzten eskubide pertsonal eta eskasak aldarrikapenarekin konforma gaitzen, herri bezala borrokatu ordez gizabanako edo korporazio gisa mugi gaitzen: "jan eta edan dezagun, bihar hilko gara eta".

Ezin erran Manex marxista izan zenik. Egia da gauza anitzetan marxismoarekin bat egiten zuela, klase arteko diferentzien salaketan eta gizaki berdinez osatutako gizarte edo mundu baten helburuan, batik bat. Baina jakin bazekien marxismoak gizarte-egitura hertsia eta gizakiaren kontzeptu mugatu bat proposatzen zituela hainbat arlotan, erlijioarena barne; oinarri antropologikoak materialismoan barneratuak zituela, azken buruan. Dena den Manexek ez zuen marxismoa etsai gisa hartu, bai ordea kapitalismoa. Haren ustez neoliberalismoak pertsonaren bokazioa oztokatzen du erruz; jabetza pribatua, mentalitate berekoa, etekin ekonomiko gehien lortzeko grina... gizakiaren alienazioak dira. Manex antikapitalista sutsua izan zen, haren ustez ikuskera burgesak misterioaren zentzua galarazten duelako, mundu materialista eta zentzugabe batera eramaten gaituelako, diru-goseak izpiritua hiltzen duelako.

Neoliberalismoa pertsona desegituratzen saiatzen da; gizakiaren alderdi materialista, kontsumista, kategoria gorenera igotzen du, gizatiartasun oro baztertuz. Ideologia horrek giza harremanak antolatzeko (desantolatzeko) kontzeptu berri bat dakarkigu: axolagabetasun morala; erran nahi baita, besteez ez kezkatzea, idealak baztertzea eta nor bere ingurune hurbil eta berekoari baizik ez begiratzea; gizakien bizia behar material hurbil eta bat-batekoetara zuzenduz. Engaiamenduak, dohaintasuneko eskaintza pertsonalak... hutsalak dira, funtsean, gure sen primarioak asetzen ez dituztelako, arazoak baizik sortzen ez dizkigutelako. Oihanaren legea negozioetan, bizimoduetan: aberatsena, gazteena, indartsuena... hori da gure gizaki eredia.

Axolagabetasun moral horren aitzinean, Manexek engaiamendua proposatzen digu. Egiazko zoriona giza harremanen aberastasunean datza: justizian, elkartasunean, askatasunean... balore handiak berreskuratzea eta gure bizi ardatz gisa kokatzea deitzen gaitu. Egiazko zorientasuna besteengan zoriona sortzetik pizten baita. Gizakion bokazioa gure izatea konpartitzea da, Jainkoagandik jaso dugun maitasuna besteei zabaltzea.

Eta konpromisoak, giza jarrera bezala, indarra du gaur egunean ere. Ongizate itxurazko gizarte honen azpian sufrimendu handia baitago, ukazio eta zapalketa aunitz baitago. Horrek guztiak axolagabetasun morala baztertzea eta egiazko giza konpromisoaren aldeko hautua egitera deitzen gaitu.

#### Kristautasun unibertsala:

Ez dezakegu fedearen erreferentzia aipatu gabe utzi. Izan ere, Manexen pentsamendua eta pertsona bera definitzean "sinestun" hitza baita bururatzen zaigun lehena.

Modernitateak ez zuen erlijioa zilegitzat hartu, gizakiaren haurtzaroko pentsamendu gaitortua zelakoan bazter utzi zuen. Zientzia zen jainko berria. Zientziaren bidez naturaren indarrak eta legeak ezagutu eta menpera genitzakeen, eta mundua absolutu ezezagunen eskuetatik askatu, guhaur lurraren eta izadiaren jabe bilakatzeko. Mundua gizakien ontasunaren bidetik behingoz zuzentzeko. Baina postmodernitateak diskurtso hori zalantzan jarri du. Zientziak ez ditu gizakiaren goseak ase, aitzitik gerra eta hondamendia ekarri dizkigu. Eta orain Jainkoari so paratu gara berriz ere, zentzurik gabeko noraezean segitu nahi ez dugulako.

Alabaina, konturatu gara erlijio-instituzioek ez dutela haraindi gogo berria asetzen. Instituzio horiek sekula baino arrisku larriagoan ikusten dute beren iraupena, eta horri

begiratzeko diote gehienbat. Horregatik sistema boteretsuaren babesak bilatzen dute, gaur egungo gizakien erlijio-arrangura berriei erreparatu gabe. Alor politikoan eta moralean gero eta diskurtso hertsia goa zabaltzen ari da eliza, gero eta kontserbatzaileagoa agertzen da, gero eta akritikoagoa neoliberalismoan oinarritutako botere-sistemekiko. Eliz beldurtu bat, Kontzilioak irekitako ate berriak behin betiko ixteko ahaleginean dabilena. Eta ezkerreko kristauak, botere eta ekonomi sistema honekiko kritikoak direnak, alde egiten ari dira, eliza hutsik, kontserbadoreen esku, uzten ari den tanta-isurtze batean. Eskuineko politika neoliberalak eta kristau-moralak batzen dituzten erlijio-azpitaldeek kontrolatu nahi dute eliza, eta agerikoa da gero eta babes gehiago dutela hierarkiaren aldetik.

Manexen kristau-belaunaldia eliza modu alternatibo batez pentsatzera ausartu zen. Oinarriko eliza, pobreen eliza, eliz gardena, azpijokorik gabea... hainbat eliz girotan ia ahantzita dauden kontzeptuak. Zapalduaren oihua, botere-sistematik baztertuta dagoenaren laguntza-eskaria... horiek dira, gaur eguneko ere, erlijioaren edozein instituzionalizazio motari oinarri sendoa eta kristau eskain diezaioketen zimentarri bakarrak. Frantziskotarren Probintziala zelarrik erlijioso-komunitate berriak osatzen saiatu zen Manex, laikoekin elkarrekin bizitzeko, etxea elkarrekin bidez gestionatzeko, herri mugimendu orori aterpea eskaintzeko... eta eliza herri-antolaketa irizpideen arabera osatzera deitzen gaitu gaur egun. Botere-sistema zapaltzaileen morroi izan ordez, munduko desordena politiko eta ekonomikoa aldatzeko lanarekin konprometitzen diren kristau-elkarrekin sare batean antolatzea da elizaren etorkizuna.

## Bukaera

Honaino Manex Erdozaintzi-Etxarten aurkezpen laburra, Europaren eraikuntzari buruz gogoeta egiten duen "Hemen"go zenbaki honetan. Ekimen garrantzitsu guztien muinean biziaren mistika berezi bat ezkututzen dela jakinik, Manex Erdozaintziren itxaropenaren mistika berreskuratu nahi izan dugu, beragan errotzen den kristau-izpiritu solidario eta konprometituarekin bat egiteko. Haatik, berari begiratzera baino, beraren eta bere aldiko kristauen ikuspegiaren norabide berean begiratzera animatu nahi nuke; eta ahalegin horretan tarte libreraren bat harrapatzen badugu, bere olerkiak eta saiakera-artikuluak irakurtzera; merezi du.

Xabier Lasa

### Bibliografia:

- ERDOZAINZTI-ETXART, Manex, *Gauaren atzekaldean*, Donostia, 1982.  
 ERDOZAINZTI-ETXART, Manex, *Herri honen erraietan*, Baiona, 1985.  
 ERDOZAINZTI-ETXART, Manex, *Bizitza pilpirak*, Baiona, 1994.  
 ERDOZAINZTI-ETXART, Manex, *Hinki-hanka*, Donostia, 1995.  
 IZAGIRRE, Koldo, *Manex Erdozaintzi-Etxart. XX. mendeko poesia-kahierrak*, Iruñea, 2002.  
 LASA, Xabier, *Manex Erdozaintzi-Etxart. Esperantza baten lekukotasuna*, in "Xirimiri de Pastoral, 29", Desclée De Brouwer, 2005.  
 ORTIZ, Agurtzane, *Manex Erdozaintzi-Etxart. Pentsamenduaren eta literaturaren iturriak*, Jakin, 143 z., 2004.